

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

205. zenbakia

Data 2002-10-29

18693 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

USURBILGO UDALA

Mugitzeko arazo larriak edo garraio publikoa erabili ezin duten pertsonak udal garraio erabil dezaten araudia.

USURBILGO UDALA

Iragarkia

Usurbilgo Udalak, 2001eko otsailaren 27an eginiko Udalbatza Plenoan, hasieran onartu zuen Mugikortasun arazo Larriak dituztenek edota garraio publiko normalizatua erabili ezin dutenek, udal garraioa, aukerako garraiobide gisa erabili ahal izateko arautegia.

2001eko maiatzaren 30eko 103. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez espedientea jendaurreko informazio-tramitean beharreko epean eduki ondoren, ez da alegaziorik aurkeztu, eta horrenbestez, aipaturiko testu arauemaile hori betiko onartutzat ematen da.

Beraz, eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikulua dioenaren arabera, erreglamendu horren testu osoa argitaratzen da.

Mugikortasun arazo larriak dituztenek edota garraio publiko normalizatua erabili ezin dutenek, udal garraioa, aukerako garraiobide gisa erabili ahal izateko arautegia.

I. Helburua.

Udal garraio emakida arautzea da oinarri hauen helburua. Emakida horren bidez aukerako garraio-bidea ahalbideratu nahi zaie minusbaliaturen bat dela eta, mugikortasun arazo larriak dituztenei edota, besterik gabe, garraio kolektibo arrunta erabili ezin dutenei bere lantegi edota minusbaliatuei zuzendutako Zentroetara joateko.

Bidaietan laguntzailerik beharko balitz senideen bizkar gain joan beharko luke.

Momentu batetan Udal garraioko plazak betetzen badira, itxaron zerrenda bat irekiko da.

II. Baldintzak.

—Usurbilgo herrian erroldatuta egotea.

—% 33ko minusbaliatua aitortuta izatea.

III. Prozedura.

A)Eskaerak Usurbilgo Udaletxeko Gizarte Zerbitzuetan aurkeztu beharko dira.

B)Behar den dokumentazioa aurkeztea:

—Eskaera.

—NA-ren fotokopia.

—Minusbaliatuaren kalifikazioaren fotokopia.

IV.Diru sarrereren zurigarria.

Interesatuen diru-sarrerak bakarrik hartuko dira kontutan.

A)Azken zerga-aldian pertsona fisikoen errenta gaineko zerga aitortpenaren fotokopia.

B)Interesatuaren pentsio agiria.

V.Gastu kengarriak.

Eskola edo zentroetara joateagatik ordaindutako hileroko aportazioa.

Ongizate Batzordeak hala baloratutako egoera berezietatik sortutako gastuak.

VI.Eranskin ekonomikoa.

Profesioarteko gutxieneko soldata (PGS)-raino: %0a.

Profesioarteko gutxieneko soldata (PGS) + 0.01 €-tk profesioarteko gutxieneko soldata (PGS) + % 15-raino:% 50a.

Profesioarteko gutxieneko soldata (PGS) + % 15etik aurrera: % 100a.

VII.Prezio publikoak.

Zerbitzuaren prezio publikoak, indarrean dagoen Ordenantzetan azaldutakoak izango dira, 2002. urtean honako hauek direlarik:

Lasartera joatea: 0,54 €.

Lasartera joan-etorria: 1,08 €.

Donostiara joatea: 0,63 €.

Donostiara joan-etorria: 1,26 €.

Usurbil, 2002ko urriaren 21a.—Alkatea.

(4074) (11347)